

Haur asko hurbildu ziren Maite Frankoren ipuinak entzutera

Kontu kontalari irundarrak lau urte daramatza harat eta honat



Ipuinez gain, aho-korapiloak eta asmakizunak ere erakutsi zizkien Maitek Alegiako gaztetxoei. [A.G.]

ALEGIA. DV. Belarriak ekarri ote zituzten galdetu zien Maite Frankok gaztetxoei. «Bai!!! Nik hementxe dauzkat!», zioen batek eskuekin ipuin kontalariari belarriak erakusten zizkion bitartean. «Zenbat, bi? Hiru agian?», Maiteren hurrengo galdera. «Ez, bi!!!», guztiek batera. Hala hasi zuen Maitek Alegiako liburuan bildutako gaztetxoei eskainitako kontu kontakizuna.

Irundarra da Maite Franko eta lau urte daramatza ipuinak kontatzen. Lau urte, geratu ere egin gabe, Euskal Herri osoan zehar umeei istorioak kontatzen. Etxean hartu omen zuen ipuin kontaketarako zaletasuna. «Etxean ilobei ipuinak kontatzen nizkien eta orduan hasi nintzen kontu honi gustua hartzen». Horrela, pixkanaka bere kasa mugitzen hasi zen eta ordutik gelditu gabe dabil.

Emanaldien prestaketa

Maitek faktore asko hartzen ditu kontutan ipuin kontaketa saio bat prestatzerako orduan. «Lehenengo gauza haurren adina izaten da, adin horri egokitutako ipuinak aurkitu behar baitira. Adibidez, 5-8 urte bitarteko haurrentzako saio baterako gauza desberdinak prestatu behar dira, adin desberdin horietarako egokiak direnak».

Txiki txikientzako, 3-5 urte inguruko haurrentzako, animaliei buruzko ipuinak bilatzen ditu, «horiek baitira beraiei gehien gustatzen zaizkienak. Gero 6 urtetik gorakoei, ikaragarri gustatzen zaizkie ipuin harrigarriak edo mireagarriak, sekulako balentriak gainditu behar dituzten heroiak dituztenak. Handiagoentzako, berriz, ohiturazko ipuinak erabiltzen ditut, ipuin ironikoak, komikoak, beldurrezkoak, satirikoak... heldutasun puntu bat eskatzen dutenak». Maitek hori guztia sartzen du maletatxoan eta gero, duen publikoaren arabera, batetik bestera salto egingez joango da.

Maiteren ustez, kontaketa baterako ipuinak laburra izan behar du, lineala, nahiko sinplea, ahal dela pertsonaia asko ez dituen eta neurri batean ahozkoatasunetik gertu dagoena. «Dena den, gero askotan zuk egiten duzu ahozkorako itzulpena, azkenean, bizidun bihurtu behar baituzu letra hutsa den testu hori».

Bakarkako ibilbidea

Normalean, bera bakarrik ibiltzen da Maite ipuin kontaketa. Aldian behin, Aizkorri argitaletxearekin elkarlanean ere ibiltzen da, baina gehienetan bere kasa. Emanaldi horiek guztiak berriz, askotan ahoz ahokoaren bidez sortzen direla kontatu digu. «Herri batera joaten zara eta ondoko herri liburutegikoa enteratzen denean, deitu egiten dizu. Askotan horrela gertatzen da».

Maiterentzat, saio irekietan duten gauzarik zailena da ez jakitea zein izango den publikoa. «Lehen esan bezala, umeen adinaren arabera antolatu behar da saioa eta nor etorriko den ez badakizu, ezin duzu guzti guztia aurretik prestatu. Baina beno, horrek ere ematen dio ipuin kontaketa bere xarma, dudarik gabe».